

SCREAM STREET

ZONBIAREN HARAGIA



TOMMY DONBAVAND

REGINA LARRUCEAREN ITZULPENA

desclée

NOR DA NOR...



Luke Watson

Kleo Farr



Resus Negatib



Dixon



Otto Handputz jauna

Samuel Harrisalt





Alston eta Bella
Negatibo



Eefa Ondobeti



Doug



Kaskezurtegi doktorea




Nilo Fair



Watson jua-andreak

Ongi etorri Scream Streetera



Nor bizi da non...

A Handipatuz Jauretxea

B Plaza nagusia

C Edabeti

D 2. zkia: Lokatzetatarrak

E 5. zkia: Garraiolariak

F 11. zkia: Diraditxo

G 13. zkia: Lake Watson

H 14. zkia: Resus Negatibo

I 21. zkia: Fefa Ondobetĭ

J 22. zkia: Kleo Farr

K 28. zkia: Doug, Turf eta Berry

L 32. zkia: Babalore Espektro

M 39. zkia: Kaskezurtegitarrak



Lehenago Scream Streeten...

Luke Watson mutil arrunt bat zen, baina hamar urte bete zituen egunean gizotso bihurtu zen. Gero, beste bi aldiz eraldatu ondoren, Munstroen Arretarako eta Kokalekuz Aldatzeko Brigaden Organoak (M.A.K.A.BR.O.) Luke eta bere familia Scream Streetera joatera behartu zituen. Scream Streeten mamuak, munstroak, zonbiak eta beste izaki asko bizi dira.

Luke berehala moldatu zen bizileku berrira, eta bi lagun egin zituen: Kleo Farr, momia astakilo bat, eta Resus Negatibo, aldameneko etxean bizi zen banpiro-familiako semea. Hala ere, Luke berehala konturatu zen gurasoek ezingo zutela sekula gainditu Scream Streeteko auzokide beldurgarriekiko izua. *Scream Streeteko Kondairak* izenburuko liburu zaharraren laguntzaz, Luke sei erlikiaren bila abiatu zen. Erlikia bakoitza Scream Streeten sortzaileetako batek utzi zuen. Erlikia guztien botere bateratua erabiliz soilik ireki ahalko du Scream Streetetik irteteko eta gurasoak etxera eramateko atea.

Lukek bilaketaren erdia egin du dagoeneko, banpiro baten letagina, sorgin-odolez betetako botilatxo bat eta momia zahar baten bihotza aurkitu ditu eta. Laugarren objektua topatzeko, halere, Lukek, Resusek eta Kleok lurpera bidaiatu beharko dute...

Lehenengo Atala

Zonbiak



Luke Watsonek aurrean belarrean zeukan bizkarrezurrari begiratu eta kontzentratuta betondoa ilundu zuen. Bere azken institutuan biologia eskolak ez ziren sekula izan horrelakoak.

—Beno? —galdetu zion Kaskezurtegi doktoreak—. Badakizu, ala ez, non hasten eta bukatzen den gerrialdea?

Lukek unetxo batez pentsatu zuen ea zer zen harrigarriagoa, irakaslea eskeleto bat izatea ala aztertzen ari zen bizkarrezurra irakaslearena izatea. Nolanahi ere, Scream Streetera iritsi zenetik horrelako

ezustekoak eguneroko gertakizun bilakatu ziren, eta, horregatik, ez batak eta ez besteak ez ziruditen hain bitxiak ordurako.

Eguzkiaren argia Scream Streetera itzuli berri zen mende bat iraun zuen sorginkeria hautsi ondoren. Horri esker, egun horretako eskola Kaskezurtegi doktorearen etxearen atzeko lorategian egiten ari ziren, eta ingurua eroso bazen ere, Lukek zailtasunak zituen hain giro lasaian kontzentratzeko.

—Zain nauzu —esan zion irakasleak.

—Ni, zera... —hasi zen Luke.

Patioko kolpe-hots batek arreta deitu zien.

—Ezin dut, jauna —kexatu zen Egiptoko momia-txo bat—. Ez naiz zure saiheits-hezurak berriz muntatzeko gai!

—Kleo, mesedez, kontuz ibili horiekin! —eskatu zion Kastezurtegi doktoreak hasperen eginez—. Ikasle bati saiheits-hezurak utzi nizkion azken aldian, hiru galdu zituen eta hilabetez pijama ez zitzaidan ongi geratu!

—Baina, jauna, ni...

Esan zuen momiak intzirika, eta, tupustean, belarditik atera zen ukabil batek eten egin zion.

Aldamenean eserita zeukan banpiro gazteak irribarre egin zuen.

—Honen zain nengoen.

Zuloa gero eta gehiago zabaldu zen eta aurpegi berde urratu bat agertu zen. Begi zuriak kliskatu zituen eguzkipean.

—Zerbaiten bila, Doug? —galdetu zion banpiroak eskua kapan sartu eta hanka bat ateratzen zuela. Larruazala zauriz beteta zeukan.

—Motel! —esan zuen zonbiak irribarretsu—. Goiz osoa eman dut horren bila.

—Eskolara bidean aurkitu dut —azaldu zion banpiroak—. Gau gogorra?

Dougek baiezkoa egin zuen.

—Parranda-hiria, motel! Orain josteko tresnekin lanpetuta egongo naiz. Egun bikaina gaurkoa! —Zonbia, bere gorputz-adar galdua berreskuratu ondoren, zuloan sartu zen berriz—. Usaindu arte, moteltxo...

Irakaslearen burezurra lorategira begira zegoen, ontzi baten gainean.

—Ez pentsa, gero, ez-hildakoein egin duzun lanagatik libratuko zarenik, Resus Negatibo! —ohar-tarazi zion—. Nire hankaren beheko aldea muntatu behar duzu oraindik.

—Zergatik ikasi behar dugu hau guztia? —kexatu zen Resus orroka.

—Ez nituelako hogeita hamar urte eman zutik unibertsitate bateko zientzia laborategian neureganatu nuen ezagutza guztia alferrik galtzen uzteko! —azaldu zion burezurak.

—Bai, jauna —esan zion Resusek irribarrez—, garuna beteta daukat... begira!

Lukek barreari eutsi behar izan zion banpiroak eskua berriz kaparen tolesduren artean sartu eta kolore argiko gelatinaz estalitako organo gris likatsu bat atera zuenean.

—Hori nazkagarria da —kexatu zen Kleo, ahoa aurpegiko lotailuekin estaltzen zuela.

—Noren garuna da? —galdetu zion Kaskezurtegi doktoreak.

—Nire osaba txiki Igorrek bidali zidan —erantzun zion Resusek.

—Zure familia nazkagarria da! —esan zion Kleok.

—Nola esan dezakezu hori? —galdetu zion Resusek—. Momifikatu zintuztenean garuna sudurretik atera zizuten metalezko gakoekin!

—Bai, egia izango da —esan zion Kleok—, baina nik ez daramat aldean sari bat izango balitz beza...

Aldarri egin zuen belarrean beste esku bat agertu zitzaionean aurrean.

Resusek irribarre egin zuen.

—Zer galdu duzu oraingoan, Doug?

Gris koloreko buru bat indarrez atera zen lurretik. Izaki hari begi bat falta zitzaion, eta masailean zeukan zauri sakonari likido marroi likatsu bat zerion.

—Zera... hori ez da Doug... —esan zuen Lukek.

—Garun huts! —esan zuen zonbiak orroka, lortegia begiekin aztertuz—. Garun huts!

Resusek salto egin zuen beste esku batek zelaia leherketa batean bezala zeharkatu zuenean, eta beste batek gauza bera egin zuen handik metro batzuetara. Orduan, munstro gehiago agertu ziren, lurretik irteko indar eginez, eta denak ari ziren gauza bera esaten.

